

www.noaia.com

Noaia!!!



Demode Quartet-en umorea,
Soinurbil Musika Astean



Ez da txantxetako gauza
Aginagako Mendi Lasterketa


USURBILGO ALKARTASUNA BASERRITARREN KOOPERATIBAN GASOLIO SALMENTARAKO AUTOZERBITZUA 24 ORDUZ IREKIA



hurbilag  Txartelarekin ordainduta,
%2,5eko deskontua



* Gasolioaren oraingo prezioa: litroa 1,277 €



Albisteak iruditzen!

Jalgi Hadi Garaipenera! Buruntza aurkeztu da

Andoain, Hernani, Lasarte eta Usurbilgo gazte mugimenduen bilgune berri bat aurkeztu dute Usurbilen; Jalgi Hadi Garaipenera! Buruntza. "Eskualdeko gazteen arteko harremana bultzatu asmoz" sortu da, larunbatean Dema plazan aurkeztu zuten bilgune berria. Ekitaldian gaineratu zuten, "aurten betetzen dira 500 urte Nafarroako erre-
suma konkistatu zutenetik, eta horren aitzakian ere Euskal Herri mailan sortu den mugimenduan ere gure eskua luzatu nahi genuke". Horren harira, Amaiurrera irteera antolatu dute martxoaren 24rako. "Bertan, gure historia-
ren parte bilakatu den gertaeraren berri ematea izango da helburu modu praktiko batean, astean zehar herri bakoitzean



AMAIURRERA IRTEERA ANTOLATU DUTE MARTXOAREN 24RAKO.

egongo diren ekitaldiei nolabaiteko akabera emanez". Antolatzaileek bilgunera gerturatzeko gonbita luzatzen diete gazteei. "Hurbil zaitez gugana eta jalgi hadi

garaipenera, denon artean garaipena hurbilago ikusiko baitugu". Larunbat eguerdiko agerraldiko bideoa, noaua.com web orrialdean ikusgai.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneako Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiaro Kirolegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publicitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregerai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



MAIALEN UNANUE

Ikuspuntuaren arabera

Fenomeno berdinen inguruan batzuek eta beste-ek egiten dituzten definizioak, askotan, ez dira berdinak izaten. Horregatik ez gara ados jartzen arazok zein diren erabakitzerakoan, edota zein faktorek eragiten duten zuzenean, eta zeintzuek ez, arazo baten aurrean. Zergatik ez du Euskal Herriak erabakitze eskubiderik? Kontua da definizioak ez datozela bat; batzuentzat Euskal Herria eta ezer ez berdin dela, eta beste batzuentzat, gure nazioa, gure herria dela. Beraz, ezin eztabaidarik egin definizioak maila berean jarri bitartean.

Gertaerak gertaera dira guztiontzat: jazo diren gauzak dira. Baina, besterik gabe pasa dira? Ez, noski; denok ere ez ditugu berdin interpretatzen, ez dugu ikuspuntua konpartitzen. Fenomeno bakoitzaren aurrean ez ditugu kausa berak ikusten. Helduko ote gara noizbait akordio batera?

Errelatoa gora, errelatoa behera. Historian zerbait idatzita utzi behar dugu gure egunez, inguruan gertatu direnez, egin ditugunez, eta egin ez ditugunez. Nork idazten duen, eta nor horrek zer ikuspuntu duen, dira kontuan eduki beharrekoak. Aspergarri samar jartzen naiz batzuetan kontu honekin, baina ezinbestekoa iruditzen zait. Ezin dute batzuek bakarrik idatzi, ez bada guztien artean adostutako zerbait. Guztiek. Gerretan irabazleek idazten omen dute historia, baina hemen ez dago gerrarik, ez behintzat tradizionalki ulertzen dugun modukorik. Ala bai? Nire zalantzak ditut.

Gauzak ez dira kasualitatez gertatzen, ordea. Francok ez zuen diktadura ezarri, hainbeste urtez, goiz polit batean hala erabaki zuelako. Francok ez zuen Juan Carlos I-ena estatu-buru jarri jatorra –bakarrik- iruditzen zitzaiolako. ETA ez zen sortu zenbait gaztek orduak kalean aspertuta pasatzen zituztelako. Denek zuten ekiteko arrazoi bat. Eta kontuz, ez nator ezer justifikatzera, baina biolentzia berdin da eskuinetik edo ezkerretik datorren, behetik edo goitik. Biolentzia da.

Ezker Abertzaleak ilegala beharko luke izan, diote, ETAREN terrorismoa gaitzesten ez duelako, jada gaitzetsi duen arren (esan dezagun, bide batez, Ezker Abertzaleak eman dituen pauso guztiak ez direla nahiko zenbaitentzat, eta ez da inoiz izango batzuentzat). Nik ez dut PPren edota PSOEn militarrik/agintaririk inoiz entzun Francoren estatu terrorismoa zela esanez, Gerra Zibilean eta Diktaduran egin ziren ankerkeria guztiak terrorismoa zirela esanez. Zergatik ez dugu hiruko erregela txatxu bat aplikatzen?

Jokoaren arauak alda litezke, nahi erara, segun eta zeini aplikatu nahi dizkiogun. Legeak hain dira irekiak, era askotara interpretatu eta aplikatu daitezkeela. Ze zoragarria den batzuen demokrazia! Eta begira ze zorte ona daukagun, eta zein gustura gabiltzan salbuespen batetik beste salbuespenera saltoka. Eskerrak nazioartetik begira ditugula, eta konturatzen ari direla (espero dezagun) demokraziak hemen aspaldi galdu zuela hala deitzeko merezimendua.

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Patxi Uranga bisitatzetik bueltan, auto istripua izan zuten hiru lagunek

Alacanteko espetxean dagoen Patxi Uranga bisitatu ostean, etxera itzultzen ari ziren bere hiru lagunek auto istripua izan zuten, martxoaren 4an. Onik daude hirurak, Etxerat-ek berri eman dutenez, “3 lagunek ez zuten kalte fisiko handirik izan, baina autoak kalte handiak ditu”.

Alacantetik Bilbora hegazkinez bueltatu, eta Bizkaiko hiriburutik Oriora

zetoze gertatu zen ezbeharra, hilaren 4ko gauerdia pasata A-8 autopistan, Eibar parean. “Badirudi errepidea zikina zegoela, eta gidariak autoaren kontrola galdu eta istripua izan zuten”, berri eman du Etxerat-ek.

“Espetxe politika aldatzea”

2012. urtean dispertsio politikak eragindako laugarren istripua dela gogorarazi dute Etxerat-etik. Gaineratu dutenez, “sakabanaketak

dirauen 22 urteotan 16 senide eta lagunek galdu dute bizia errepideetan eta ehunka izan dira pairatu behar izan ditugun kotxe istripuak. Zenbatu ezinak izan dira senide eta lagunok pairatu ditugun kalte fisiko, psikologiko eta ekonomikoak”.

Espetxe politika “egungo konponbide klabeetara aldatu” eta euskal preso politikoen sakabanaketa politika indargabatzea eskatu diete Etxerat-etik, espainiar eta frantziar gobernuai.

Kuboari gorazarre

Atez atekoaren 3. urteurreneko ekitaldia egingo da igandean

Martxoaren 16an Gipuzkoan atez ateko bilketaren lehen esperientzia abiatu zela hiru urte beteko dira. Usurbil izan zen aitzindaria. Gerora, Hernani, Oiartzun eta Antzuola batu zitzaizkion 2013an bide berari helduko diote herrialdeko beste 34 udalerriek. Herri hauei eta gainerakoei sistemarekin usurbildarrak gustura daudela adierazteko, urteurren ekitaldia antolatu du Gipuzkoa Zero Zabor (GZZ) bilguneak, Zero Zabor taldeen laguntzaz, igande honetarako, 12:00etan Dema plazan. Herritarrei kubo marroiak eskutan hartuta, hitzordura gerturatzea deitu diete. Gainerako 34 udalerrietako ordezkariak ere Usurbilen izatea aurreikusia dute GZZ-ko kideek.

NOAUA! Zer inpresiorekin ailegatu zarete hirugarren urtemuga honetara?

Mikel Ikatzategi. Inpresio oso onarekin. Memoria egiten badugu, duela hiru urte zer egoeratan geunden, zer sententzio, kezka zeuden herritarren artean, ikusi dugu, bizimodu erabat normala egin, eta herria lehen baino garbiagoa dagoela. Emaitzak ere denok ezagutzen ditugu: 2008ko %23tik, %88ko gaikako bilketara igaro gara. Baina eman dizkiguten datu horiez gain, geure etxean gutako bakoitzak ikusten du zer zabor gutxi eta nolakoa sortzen dugun. Eta hori esan bezala, normaltasun oso batean bizi da. Balorazioa beraz, oso positiboa da.

N. Atez atekoak zer du hobetzeko Usurbilen?

M. I. Batetik, Zero Zabor bidean plastikozko poltsak ekidin behar ditugula esaten dugu baina oraindik gure hondakinak ateratzeko plastikozko poltsen mende gaude. Hor dago baita tasa justua aplikatzeko aukera, hau da bakoitzak sortzen duen hondakin kopuruaren arabera ordaintzea. Badaude beste gauza batzuk oso ondo landu direnak; etxeko eta kaleko konpostatzea, herritarrek oso ondo erantzuten ari dira.

N. Hurrengo erronka hondakin murrizketa bultzatzea dela esan daiteke, beraz?

M. I. Zenbat eta hondakin gutxiago sortu, hobe, baina faseka joan behar da. Beste eredu batera urratsak egin nahi baditugu, gaikako bilketa eraginkorra Gipuzkoa osora zabaltzea lortu behar dugu. Orain arteko ahalegina nabarmentzekoa bada ere, ez da nahikoa hondakin kudeaketa aldatu nahi badugu. Lehentasun bezala ikusten dugu, orain atez atekora gehituko diren herri guzti hauei laguntzea.

N. Nola ikusten duzue bilguneak, Gipuzkoako beste 34 udalerriri ematekoak diren urratsak?

M. I. Oso ondo. Usurbilen bidea erakutsi dugu baina ez dugu konpondu arazoa. Arazoa konpontzeko beharrezkoa da Gipuzkoako gainerako udalerriak sartzea eta 34 udalerririk sartzen badira, ia gipuzkoarren erdiak atez ate bilduko lituzke bere hondakinak eta dudarik gabe oso garrantzitsua izan daiteke, eta erabakiorra ere etorkizunari begira. Alde horretatik ahalegintxo bat egin behar dugu gure esperientzia kontatzeko, erakusteko benetan zer emaitza lortu ditugun eta hori normaltasun osoan egiten dugun zerbait dela eta inongo arazorik gabe.

MIKEL IKATZATEGI

“300.000 gipuzkoar atez ate biltzen hasten badira, ez da sortuko zabor nahikoa erraustegia bideragarria izateko”

N. Zer aldaketa ekar dezake beste 34 udalerrietan atez atekoa martxan jaretzeak?

M. I. 300.000 gipuzkoarrek atez ate biltzen badituzte hondakinak, ez da sortuko zabor nahikoa erraustegia bideragarria izateko. Eta badu bigarren alde



IGANDEKO EKITALDIA DEMA-PLAZAN
IZANGO DA ETA KUBOAREKIN
AGERTZEKO DEIA EGIN DUTE.

bat, erakutsiko dugu kudeaketa ere beste modu batera egin daitekeela.

N. Herritarrek igandean kuboarekin agertzeraz deitzen dituzue, ezta?

M. I. Azken urteotan egin bezala, oso garrantzitsua da une honetan zabaldu duten eztabaidarekin, Gipuzkoa mailan erakustea usurbildarrok gustura gaudela gure sistemarekin, babesten dugula eta beste herritarrei transmititzea hori. Ahalegintxo bat eskatuko genieke usurbildarrei, igandeko ekitaldira kuboarekin azaltzeko, jende guztiak ikusi eta ulertu dezan, herritarrek atez atekoaren alde egiten dugula, gustura gaudela sistemarekin eta besteak ere bide honetara etortzea nahi dugula.

N. 6 hilabeteko moratoria indarrean da. Zer espero edo nahi zenukete gertatzea ekainean?

M. I. Eztabaida serio eta zintzoa egotea alde guztien artean. Datuak mahai gainean jarrita, herritar guztien osasuna eta ingurumenarentzat onenak diren aukerak hobetsi eta aplikatzea. Konfiantza dugu orain arte Aldunditik adierazi diguten zero zabor norabidea babesten segitzea eta horretan sakontzea.

buruntzaldea.org, eskualdeko ekitaldien agenda bateratua biltzen duen web orrialdea

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo kultur eskaintzaren berri, buruntzaldea.org web orrian dagoen agenda bateratuan ikus daiteke. Buruntzaldeko udal ordezkariak eta herri komunikabideak, NOAUA!-k tartean, osatzen duten lan mahaian burutu den elkarlanaren emaitza da hizpide dugun zerbitzu berria.

Sei udalerriotan, zer, non, noiz egongo den berri ematen dihardute guztiak. Buruntzaldeko herri komunikabide bakoitzak, bere udalerrian burutzen diren ekimenekin buruntzaldea.org web orriko agenda elikatzen du; NOAUA!k Usurbilgo berri ematen du, Txintxarrik Lasarte-Oriakoa, Aiurrik Urnieta eta Andoaingoa, eta Kronikak Hernani eta Astigarragakoa.

Web orrialde dinamikoa

Modu horretan, sarean eskualde osoko ekitaldi eskaintzaren berri jaso daiteke.



POTXOENEA AURKEZTU ZUTEN AGENDA BATERATUA.

Web orrialde dinamikoa da, buruntzaldea.org atariko agenda bateratua. Antolatzen diren ekitaldien berri jaso ahala, eguneratzen doan gunea dugu.

Dena klik batean

Eta datu guztiak oso eskura daude gainera. Ekitaldi motaren arabera, udalerrika, edo interesgarria zaigun datan klika-

tuta, Buruntzaldean antolatu edo deitu diren hitzorduen zehaztasunak jakin ditzakegu.

Guztia, Buruntzaldeko udal ordezkari eta herri komunikabideetako kideek martxoaren 7an inauguratu berri zen Potxoenea kultur etxean prentsaurreko bidez berri eman dutenez, klik batean dugu.

Artzabalgo jatetxea, irekita berriz

Martxoaren 6an inauguratu zutenetik zabalik dago berriz, Gure Pakea elkarteak Artzabalen duen egoitzako jatetxea. Irekiera, dantzarien agurrak, eraikinaren historiaren errebaso txiki batek, eta gero, gune eraberrituan ospatu zen luntx batek girotu zituen.



txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L

teillatuak eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Sindikatuak, martxoaren 29ko grebarako prest

Martxoaren 29rako bi aste eskas geratzen diren honetan, motorrak berotzen ari dira jada sindikatuak. Buruntzaldeko LAB eta ELA sindikatuek iragarri diren mobilizazioekin bat egitera deitu diete herritarrei, martxoaren 9an eskaini zituzten agerraldi banaren bidez. Egun berean jakinarazi zutenez, CCOO eta UGT sindikatuek ere greba deitu dute hilaren 29rako, Hego Euskal Herrian eta baita estatuan ere.

Gobernu espainiarrak onarturiko azken lan erreformaren aurrean, sindikatu guztiak martxoaren 29rako greba orokorra deitu dute Hego Euskal Herrian; ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, CGT-LKN, EHNE eta Hiruk. Baita CCOO eta UGT-k ere. Buruntzaldeko LAB-etik prentsaurreko bidez martxoaren 9an Lasarte-Orian gogorarazi zutenez, “langileria osoari egiten dio eraso eta erreforma horren ondorioa izango da, langileriaren lan harremanak eta denon bizi baldintzak orokorrean kaskartzea”. Azken erreforma honek, langileen eros ahalmena murriztea du helburu LAB-etik diotenez. Erasotzat jo duten hau, azkena ez dela izango ere ohartarazi dute, “ziur gara gehiago etorriko direla”.

Euskal Herria politiko eta ekonomikoki burujabea izan eta justizia sozialean oinarritzea beharrezkotzat jotzen du LAB sindikatuak. Eragile sozial eta politikoen hartu emanetan da LAB sindikatuak, “beste ekimen batzuk martxan jartzeko eta Martxoaren 29an herrietan grebari babesa emateko ekimen eta mobilizazioak antolatzeko”. Herritarrei greba babesteko deia luzatzen diete.

ELA: “Mobilizazioa egitea besterik ez zaigu geratzen”

“Enplegua, soldadak eta lortutako baldintza eta eskubideak errotik desagerraraztea”, helburu du espainiar gobernuak onarturiko lan erreforma berriak, Buruntzaldeko ELA sindikatutik datarren greba orokorreko deialdiari begira, martxoaren 9an Hernaniko euren egoitzan eskaini zuten prentsaurrekoan adie-



ELA-K (GOIAN) ETA LAB-EK (BEHEAN) ABERRALDIAK EGIN DITUZTE EGUNOTAN.

razi zutenez. “Lan eta gizarte eskubideen aurka eginiko erasorik bortitzena da!”, diote ELA-tik. Gizartea izutu eta urtetan lorturiko eskubideak kentzeko krisiaren aitzakia baliatzen ari direla diote. Gaineratu dutenez, “gezurra da eskubideen murrizketak direla, krisiari aurre egiteko bide bakarrak”. Eta ohartarazten dutenez, etorkizunean murrizketa gehiago izango dira.

Honen aurrean mobilizatzea beste biderik ez dago ELA-ren iritziz. Horregatik, herritarrei greba orokorrarekin bat egitera deitzen diete. “Gure eskuetan dago, gure eta gure ondorengo baldintzak hobetzea eta jasaten ditugun erasoaren aurrean, mobilizazioa egitea besterik ez zaigu geratzen”. Alternatibean alde borrokatzen jarraitzeko asmoa du ELA-k, “gizarte politikak aldatzeko botere-esparru guztietan baitago aukera”. Elkarlanean hasiak dira, eragileekin.

Estatuan ere, greba eguna

Buruntzaldeko ELA eta LAB sindikatuek prentsaurreko bana eskaini zuten egun berean, CCOO eta UGT sindikatuek martxoaren 29rako ere greba oro-

korra deitu dutela jakinarazi zuten. Bai Hego Euskal Herrian, baita estatu espainiarrean ere.

Greba aurreko deialdiak

Hilaren 29ko greba egunari begira, alde aurretik zenbait hitzordu deitu dituzte Buruntzaldeko ELA eta LAB sindikatuek. Auto-karabanak, langileen batzarrak... Besteak beste, honako hauek:

ELA

Martxoak 21, asteazkena

10:00/18:00 Herri batzarra Hernanin, “Buruntzaldeko langile, langabetu, ikasle, erretiratu zein beste edozeinentzako”.

LAB

Martxoak 23, ostirala

19:00 Manifestazioa Lasarten, Okendo plazatik abiatuta.

Martxoak 27, asteartea

Eskualde osotik igaroko den auto karabana, Hernanitik abiatuta.

VIII. Soinurbil, martxoaren 20tik 25era

Ikuskizuna, kalejira, erakustaldia, kontzertua... Formatu edo diziplina desberdinetako hitzorduak biltzen dituen ekimena antolatu du Zumartek martxorako hirugarren asterako; Soinurbil Musika Astea. Ekitaldi guztiok protagonista nagusi bat izango dute; musika. Soinurbilen zortzigarren edizioa, hilaren 20tik 25era ospatuko da.

Musika arte eszenikoetako beste diziplina batzuekin uztartuak dituen ekitaldiak lotu ditu Zumartek, zortzigarren ediziora ailegatu den Soinurbil ekimenerako. Datorren astetik aurrera ospatuko den Musika Astearen baitan adibidez, Sutegin eskainiko diren bi ikuskizunetara hurbiltzeko aukera egongo da. "De Mode Quartet" laukoteak, umorez betetako musika eta antzerki emanaldia eskainiko dute kultur etxeko auditorioan. Hilaren 23an izango den emanaldiak, "A capella" abestutako bertsoak, koreografia atseginak eta elkarrizketa bitxiak tartekatuko ditu.

EKITALDI UGARI

"Nafarroako Garinoain herriko Musika Bandaren emanaldiarekin amaituko da aurtengo Soinurbil"

Soinurbil Musika Asteari beste ikuskizun batek emango dio hasiera. "Musika Tresnen Fabrika" izenekoak hain zuzen. 10 urte arteko haurrei



MUSIKA ETA UMOREA UZTARTZEN DITU DEMODE TALDEAK.

zuzenduriko emanaldia da, musika tresnen erabilera irakasten duen Kortxea Doktorea, bere lagun Filomena eta bien laguntzaile Koxme izeneko pertsonaiekin. Bi ikuskizun hauetarako sarrerak, aldezturik Oiaro Kiroldogian eskuratu ahal izango dira.

Elkartrukea, Loatzo Musika Eskolarekin

Urtero Zumarte Musika Eskolak beste eskola batekin elkartrukea egiten du. Aurtengo elkartrukea, Tolosaldeko Loatzo Musika Eskolarekin izango da. Usurbildarrekin batera, Loatzoko kideek saioa eskainiko dute Sutegin hilaren 22an.

Azken udal hauteskundeetan gertaturikoagatik ezaguna egin den Nafarroako Garinoain udalerrikoen bisitaldiak borobilduko du 2012ko Soinurbil. Martxoaren 25ean kalejirarekin Kaxko ingurua girotuko du bertako Musika Bandak, eta gero, frontoian emanaldia eskainiko dute.

Elizako organoa bisitatzeko aukera berri bat

Mendeurrena bete eta eradagoen Salbatore Parrokiako organoa bisitatzeko aukera berri bat ere eskainiko du Soinurbilek. Organoaren Lagunak taldeko ordezkari Joan Luis Atxegak egingo ditu gida lanak hilaren 21ean.

Martxoaren 24an,

Donostia-Eresbil abesbatza Parrokiatik mugitu gabe, elizan bertan burutuko da Soinurbil ekimeneko beste ekitaldi bat ere. Donosti-Ereski abesbatzakoek kontzertuaz gozatu ahal izango da bertan, martxoaren 24an.

**TXAPELDUN
TABERNA**
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...

Muna Iurra 2, 943 11 82 53

Josue
Igeltseritza:

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

JE **JON ELORZA**
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Egitaraua, egunez egun

Martxoak 20, asteartea: "Musika tresnen fabrika"

Ikuskizuneko hiru pertsonaiak:

-Kortxea Doktorea: Fabrikako lutiera da, pixka bat txoratuta dago, eta gauzak asko nahasten ditu. Musika tresnak nola erabiltzen diren erakustez arduratzen da. Gainera dantzatu eta kantatu egiten du.

-Filomena: Kortxea jaunari zentzua jartzen saiatzen da. Instrumentuak jotzen ditu Kortxea jaunarekin batera. Kantatu eta dantzatu ere egiten du.

-Koxme: Kortxe doktorea eta Filomenaren laguntzaile eta mekanikoa da.

Ordua: 18:00. Sarrerak: aldez aurretik 2 eurotan Oiardo Kiroldegian. Egunean bertan, 4 eurotan lehiatilan.

Tokia: Sutegiko auditorioa.

Taldea: Sointek.

Nori zuzendua: 10 urte arte.

Martxoak 21, asteazkena: Organo erakustaldia

Gidaria: Joan Luis Atxega.

Ordua: 18:30. Sarrera: doan.

Tokia: Salbatore eliza.

Martxoak 22, osteguna: Loatzo Musika

Eskolarekin trukaketa

Ordua: 18:30. Sarrera: doan.

Tokia: Sutegiko auditorioa.

Martxoak 23, ostirala: De Mode Quartet

Taldekideak: Mikel de la Fuente (ahotsa eta teklatura), Joli Pascualena (ahotsa eta gitarra), Iker Huitzi (ahotsa eta kajoi flamenkoa), Mikel Espinal



SOINTEK TALDEAK "MUSIKA TRESNEN FABRIKA" ERAKUTSIKO DIGU.

(ahotsa eta biola), Patxi Barco (gidoia eta zuzendaritza), Eva Rada (soinu teknikaria), Javier Perez (argi teknikaria), Julia Marin (euskara egokitzapena).

Edukia: umorez betetako musika ikuskizun harrigarria da, taldea erazten duten lau kideek saio berezia eskainiko baitigute beren nortasun xelebrearekin. Antzerki ikuskizun honetan, "a capella" abestutako bertsoak entzungo ditugu, baina baita pianoz, gitarraz, biolaz eta kaxoi flamenkoz lagundutakoak ere; koreografia atseginak eta elkarriketa bitxiak. Hitz gutxitan, ordubete eta hoge minutuko show guztiz dibertigarria.

Ordua: 20:30. Sarrerak: aldez aurretik 6 eurotan Oiardo Kiroldegian. Egunean bertan, 8 euro lehiatilan.

Tokia: Sutegiko auditorioa.

Martxoak 24, larunbata: Donosti-Ereski abesbatza

Ordua: 20:00. Sarrera: doan.

Tokia: Salbatore eliza.

Babeslea: Kutxa.



Martxoak 25, igandea: Garinoaingo Musika Banda

11:30 Kalejira.

12:30 Emanaldia frontoian.

Antolatzaileak: Zumarte Musika Eskola eta Usurbilgo Udala.

ARRANDEGIA
PELLO
PUNTA PAX 7
943 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
edaritegia
PINTXO BEREZIAK
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
URDAINTZI@EUTKALNET.NET
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

**BENTA
TABERNA**
HANBURGESAK
Oilasko erreak
Ogitartekoak
943 36 93 05

Joseba Rezola Aginagako Mendi Lasterketan irtengo da “Asfaltoko pike hori mendian desagertu egiten da”

25 urterekin hasi zen Joseba Rezola aginagarra korrika, duela bi hamarkada, Behobia-Donostia probarekin. Azken lauzpabost urteotan, mendiko lasterketetan parte hartzen dabil. Sorterrikoan, Aginagan orain arteko edizio guztietan parte hartu du, eta aurtengoan ere hor izango da. Giro polita egongo dela eta, jendea-ri bertaratzeko gonbita luzatzen dio.

NOAUA! Asfaltotik mendirako jauzian, zer alde nabaritu duzu?

Joseba Rezola. Aspertu bezala egin ginen asfaltoko probetan. Aldaketa hoberako izan zen. Asfaltoan beti erlojuari begira zaude. Baina mendian aldapa handiak daudenez, oinez ibili behar baduzu gelditu egiten zara. Beste psikologia bat da. Zeure kontutik zoaz, paisaiak ikusten. Neure kasuan gainera, mendian nabilenetik lesio askoz gutxiago izaten ditut.

JOSEBA REZOLA

“Antolatzaile eta boluntario guztiak goraiatu nahi nituzke, egiten duten lanagatik”

Egia da jaitsieratan belaunek sufritzen dutela. Baina zapaltzeko eran terreno irregularra denez, lehengo aldean, hobeto orain. Lehen gogoratzen naiz, astean behin masajistarena joan behar izaten genuen. Orain hilean behin joanda nahikoa da. Gozatzeko eta mantentzeko, kirola egitea gustuko dugu.

N. Aginagako zirkuituak zer ezaugarri ditu?

J. R. Asfalto pixka bat badu hasieran. Lehen kilometro eta erdia asfaltoan da. Dezente gogorra da, aldaparekin hasten baita. Aurreneko aldia duenak, lasai hasi dadila. Bi edo hirugarren kilometrotik aurrera hor bai pikea hasten dela.



JOSEBA REZOLA GUSTURA IBILI OHI DA AGINAGAKO MENDI LASTERKETAN.

Mapiletik gora abiatzen da. Jende asko ezagutu dut aurreko urteetan, sekula mendian lasterka aritu gabe, eta gustatu zaienak. Gero ahal den moduan, oinez ibili behar denean gelditu behar da eta bestela korrika. Irabazten duenak beti korrika aritzen da, baina ez da geure kasua. Lasai hartzeko proba da.

N. Aginagarra izatea abantaila da probari begira?

J. R. Presio aldetik dena abantaila da. Jendea ere gehiago ezagutzen da. Antolatzaileek eurek ere ezagutu eta animatzen zaituzte. Antolatzaile eta boluntario guztiak goraiatu nahi nituzke, egiten duten lanagatik. Beti proba burutu baino bi aste lehenago bidea garbitzen dute. Ez da mendiko bidea, beraiek irekitakoa baizik. Aginagarra naiz, gaztetan bideotan ibilia, baina zati guztiak ez nituen ezagutzen.

N. Mendi inguruak zaintzeak duen garrantziaz ere jabetzen zarete korrikalariok?

J. R. Ez dago txikizio askorik egin beharrik. Beste herrietara ere joaten garenean, normalean korrikalariok nahiago izaten dugu zenbat eta asfalto gutxiago orduan eta hobeto. Kontziente izan behar gara ezin direla kristoren bideak ireki, lasterketa lekuotatik pasatzeko.

“Bapo sufritzen da”

NOAUA! Aginagakoaz gain, zein da zuen proba egutegia aurtengorako?

Joseba Rezola. Agian Oriokoan parte hartuko dugu. Gero Berako maratoni erdia izaten da. Larruneraino igotzen da eta bista izugarriak izaten dira. Bapo sufritzen da. Pagoetakoa jarraian. Momentuz horiek. Udan gero atsedean hartu eta irailetik aurrera Behobiako proba prestatuko dugu. Gero beste proba batzuk ere badaude, tarteka, Amasakoa. Aloñara ere joan nahi dugu, Oñatitik ateratzen den lasterketara.

N. Taldean mugitzen zarete?

J. R. Gu lauzpabost biltzen gara. Herri batera edo bestera joaten garenean, aitzakia jartzen dugu egun pasa familian eta lagun artean han egiteko. Urriko lehen igandean, bada beste proba polit bat, Orreaga-Zubiri artekoa. Erromesen bidetik egiten da, 21 kilometrokoa. Erreferentziak badituzte eta ia egiten dugun. Ez da erraza, Aginagako festak baitira. Eta adi egon beharra dago, segituan betetzen baita kupoak. Orreagakoa, 500entzat bakarrik da.

“Entrenatu beharra dago, ezin da bi astetik behin ibili eta halako proba batean parte hartu”

NOAUA! Mendiko probek ere geroz eta jende gehiago erakartzen al dute?

Joseba Rezola. Behobiakoa aparteko zerbait da. Baina egia da, funtzionatzen ari dela eta jendea asfaltotik mendiko lasterketetara igarotzen ari dela. Ahoz aho-koak funtzionatzen duelako. Batak beste-ari proba egin behar duela esan, bizpahirutan parte hartu eta erabat murgiltzen da. Interneten sartuta, astero probak dau- dela ikus daiteke, geroz eta jende gehiago mugitzen duen seinale.

N. Mendiko probetarako aparteko prestakuntza behar da?

J. R. Ez dut uste, baina prestatu beharra dago. Igandero mendira joaten gara lauz- pabost, bi ordu pasatxoko saioa egiten dugu Andatzako pistan. Eta oso gustura. Gainera ez dago asfaltoa zeharo utzi beha- rrik. Biak uztar daitezke.

N. Maila fisikoaz gain, buruak garran- tzizko pisua du mendiko probetan. Ibilbidea jasatea nola eramaten duzu?

J. R. Burua oso garrantzitsua da. Baina kontuan izan behar da, gehiena igotzera- koan sufritzen bada, asegarrria dela proba bukatzen edo jaisten ari zarenean. Sufrimenduak beste alde bat du, asebet- tzeak osatzen du. Horregatik, entrenatu beharra dago. Ezin da bi astetik behin ibili eta halako proba batean parte hartu. Orduan bai, sufritzen baita.

N. Garrantzitsua da baita, norberak dituen mugak ezagutzea ezta?

J. R. Buruarena garrantzitsua da horre- gatik. Lasterketetan ondo ibiltzen den horren atzetik ezin da segi. Bakoitzak daki bere gorputzeko mugak zein diren, zenbat



JOSEBA REZOLA, DUELA BI URTEKO LASTERKETAN. HELMUGARA IRISTEAR ZELA, JARRAITZAILEEN ANIMOAK JASOTZEN.

ibili den, eta horrek ez du esan nahi, urte- tik urtera aurreratzen joango ez denik. Horregatik, asfaltoko pike hori mendian desagertu egiten da. Niri gertatu zait, aurreko probetan, Aginagakoan, kanpotik etorri lasterkariak eta goraka pasatzea. Baina ordekan edo jaisterakoan, zuk zero- rrek besteei pasatzea. Askotan alde horre- tatik, kanpotik etorritakoak zirkuituaga- tik galdezka aritzen dira; ia zenbat falta den eta.

N. Proba berri baten aurrean, ibilbidea aldeztetik ezagutzea gustuko duzu?

J. R. Normalean ni joaten naizen pro- betan, aldeztetik aholkuak jasotzen ditut. Berakoan, adibidez, 21 kilometro- tako proba da. 14 kilometro egin arte, Larrun igo arte, oso gogorra da, baina gero 6 kilometro gelditzen dira. Indarra dosifikatzeko, jendeari galdetzen diozu. Entzundakoaz baliatzen naiz.

11:00etan abiatuko da Aginagako frontoitik

Aginagako IV. Mendi Lasterketa igande honetan ospatuko da. Iaz, eguraldiak gehiago zaildu zuen lasterkarien lana. Ea aur- tangoan zorte hobea duten.

Aginagako frontoitik abiatu eta ber- tan amaituko da Mendi Lasterketa. Goizeko 11:00etan hasita, 14 kilome- troko ibilbidea osatu beharko dute las- terkariak. Baina kontuan izan 10:30ean itxiko dela izen ematea.

Ordu bete lehenagotik 15 euro ordainduta, mendi aldeko lasterketa honetan parte hartu ahal da. Edo bestela, aldeztetik, 10 euroren truke herrikrossa.com web orrialdean sartuta.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 24 01 76 eta
649 435 470
errazkinsl@euskalnet.net
kale nagusia 47, behe A

TAXI
607 92 87 70
943 00 44 83
Angel (24h) USURBIL

Poxpolin
MERTZERIA
943 36 82 06
Zubiaurrenea 3, baxua

1.200 erosketatik gora, ontzi berrerabilgarriekin

Duela hilabete pasatxo burutu zen "Ontziratuzaituz. Dendatik sukaldera, usain eta hondakinik gabe!" kanpainaren baitan, haragia edo arraina erosi eta etxera eramateko 1.000 ontzi berrerabilgarri banatu ziren herritarren artean. Egitasmoa, Usurbilgo Udalak, Hurbilago Elkarteak, Usurbil Zero Zaborrek, herriko zortzi saltokik eta Kutxa Ekoguneak bultzatu zuten. Eragileek jakitera eman dutenez, ontzi berrerabilgarriok banatu bakarrik ez, erabili ere erabili dituzte herritarrek.

Otsailean, herritarrek 1.200 erosketak baino gehiago egin dituzte tupper berdeokin, ekimenarekin bat egin duten herriko zortzi arrandegi eta harategietan.

Otsailean saritutakoak

Urtarrilaren 28tik otsailaren 4ra luzatu zen kanpainaren baitan gogorarazi zenez, ontzi berrerabilgarriekin eroske-



ZOKKETAN SARITUAK IZAN DIREN HERRITARRAK ETA HAINBAT DENDARI.

tak egiten zituztenek 30 euroko erosketak balea irabaz zezaketen. Herriko zortzi arrandegi eta harategietan otsailari dagokion zozketa egin dute jada, eta hauek izan dira sarituak: Agustina Aristi, Mari Jose Arruti, Dolores Alonso, Dolores Errasti, Eba Fariña, Eukene Kamino, Lourdes Mendizabal, Roman Zulaika.

Martxoan, beste zortzi saritu
Otsailean burutu den zozketa hilerok

errepikatuko da. Honenbestez, martxoan ere beste 8 saritu egongo dira.

30 euroko erosketak balearen zozketan parte hartzeko, egin beharreko bakarra dago; arraina edo haragia erostera joatean, tupper berdea erabiltzea.

Goiko argazkian, otsaileko sarituak eta dendariak ageri dira, Artzabal base-ri. Batzuk eta besteak, ontziok erabiltzen jarraitzeko deia luzatu nahi diete herritarrei.

2012
LABUR BIRA
FILM LABURREN IX. ZIRKUITUA
MARTXOAREN 18AN, 19:00h, SUTEGIN





www.noaua.com

Kantu Taldearen entseguan

Mikel Markez abeslariak hartuko du parte

Euskal Kantu Taldeko kideek asteartero entseatu ohi dute. Datorrena, martxoaren 20koa, berezia izango da. Mikel Markez abeslariak parte hartuko baitu, 18:30ean Udarregi Ikastolako musika gelan. Ekitaldia, entsegu guztiak bezala, irekia izango da eta edonork parte hartu ahal izango du.

NOAUA! Usurbila zatoz martxoaren 20an, kantuzaleen entsegura. Aurreratu ezazu, zer egin asmo duzue saio horretan?

Mikel Markez. Zenbait kanturen inguruko testuingurua azaltzen saiatuko naiz. Kantuek beren garaia dute, beren egitura, hitzek esanahi bat. Askotan, edo ia beti esango nuke, ez diogu erreparatzen guzti horri. Kantuak kantatu egiten ditugu eta kitto.

MIKEL MARKEZ

“Kantatzea gustatzen bazaizue eta kantuen inguruko kontu interesgarriak entzun nahi badituzue, azaldu”

N. Euskal Kantu Taldeak burutu ohi duen entsegu saioekin alderatuta, zertan desberdindu da hitzordu hau?

M. M. Pozgarria da zenbait herritan kantuarekiko maitasuna duen jendea dagoela ikustea. Bere martxa izango du talde horrek, bere errepertorioa, bere ohitura. Nik kolore berri bat ekarriko diedala esango nuke. Nire argibideak entzun ondoren nik beraiekin batera kantatuko baitut.

N. Halako ekimenetan parte hartu ohi duzu? Hala bada, deskribaiguzu, zer giro sortzen den, non ibili ohi zaren, zer moduzko esperientziak bizi izan dituzun...



ASTEARTEAN, 18:30EAN UDARREGI IKASTOLAN IZANGO DA, KANTU TALDEAREN ENTSEGUAN.

M. M. Azken aldian gutxiago baina urteetan horrelako ekitaldi asko egin ditut. Lehena, orain 20 urtetik gora izan zen, Eibarren. Gero, oroitzen dut Ondarroan egin genuen ikastaro luze bat ere. 200 kantu inguru landu genituen. Nik 19 urte neuzkan eta “ikasle” guztiak ni baino zaharragoak ziren, eta askok Ondarroako kantu zahar mordo bat zekizkiten. Ni ikastaro hartan irakasle baino ikasle izan nintzen... Seguru Usurbilen ere kantatuko didatela sekula entzun ez dudan kanturen bat.

N. Usurbilen euskal kantu zale ugari dago. Gonbidatu guztiak, hilaren 20ko saiora.

M. M. Kantatzea gustatzen bazaizue eta kantuen inguruko kontu interesgarriak entzun nahi badituzue azaldu!

N. Usurbilgoa bezalako kantuzale talde ugari sortu da inguruetan. Bada beraz gogoia euskaraz abesteko. Nola bizi duzu zuk loraldi hau?

M. M. Nik uste dut talde hauen loratzek baduela gizartean ohiturak

aldatu izanarekin zerikusirik. Izan ere, lehen modu naturalean kantatzen zen tabernatan, afalosteetan, poteoan. Orain ez da egiten eta talde hauek “hutsune” hori estali nahi izaten dute. Hobe litzateke jendeak katurako behar hori berezko eguneroko bizitzan ase izateko modurik balu, baina horrela ez denez...

N. Euskal kantugintzaren inguruan diharduzu hain zuzen, Euskadi Irratian aurkezten duzun saioan. Zer moduz irratia esatari lanetan, eroso?

M. M. Herri Irratian 1993an hasi nintzen Txema Auzmendirekin eta geroztik beti egin izan dut saioen bat, etenik gabe.

Irratian egiten dudan saioa nire kantugintzaren zati bezala ulertzen dut. Ni orokorrean kantatzea banaiz, kasu hontan, irratiautorea ere banaizela esango nuke. Adi egotera behartzen nau, ateratzen diren diskoak entzute-ra, lehengo eta oraingo kantugileekin egotera... Eta tontoari karamelua baino gehiago gustatzen zait gainera irratia.

Udarregiko Inauteri Jaialdia

Denok jakingo duzuen moduan, duela aste batzuk urtero Udarregi ikastolak antolatu ohi duen inauterietako jaialdia ospatu zen Usurbilgo kiroldegian.

Aurtengoan ikasle txikienek, hain zuzen ere, HH-koek, urtero bezala beraien zaku liluragarriak jantzi eta beraien dantzak aurkeztu zizkiguten, hala nola, "axuri beltza", "orkestra", "arroxali" eta beste hainbat ikuskizun. LH-ko ikasleak ordea, euskal mitologian barneratu ziren eta antzinako hainbat pertsonaia ezagunen pasarteak gogogarazi zizkiguten, ikasten aritu ziren dantzen bidez. DBH-koek aldiz, munduko kulturak erakutsi zizkiguten eta aurten ere urtero bezala maila altua erakutsi zuten. Urtero bezala, DBH3-koek aukeratu zuten bigarren hezkuntzako gaia, ikuskizun honetan parte hartzen duten azken urtea baita.

Txalo ugari

Azpimarragarria iruditzen zaigu ikusleek izan zuten jarrera, izan ere, nahiz eta aurten segurtasun arazoak zirela medio jende gutxiagok kiroldegian sartzeko aukera izan, ez zen txalo hutsunerik sumatu.

Hala ere, herritar guztiak izan zuten ikasleak mozorroturik eta dantzan ikusteko aukera, izan ere, LH-ko gazteek urtero bezala, ohiko desfilea egin zuten herrian zehar kiroldegiko jaialdiaren aurretik.

Hippyen dantza

Ikusleen jarrerari dagokionez, esan genezake, ikuskizun aipagarrienetariko bat, LH6-koek egindakoa izan zela. Hauek LH-ko beste ikasle mailen aldean, ez zuten euskal mitologian oinarritutako dantzarik egin. Gazte hauek, LH6n urtero egin ohi den bezala, beraien gaia aukeratzeko askatasuna izan zuten. Kasu honetan "hippy mugimenduari" buruzko dantza eskaini zuten.

Lehen aipatu bezala, ikuskizun hau izan zen ikusleek gehien gozatu zutena, gurasoek batez ere, ikasleek dantza egiteko hautatu zuten kantua oso ezaguna



DANTZA IKUSGARRIAK EGIN ZITUZTEN KIROLDEGIAN.

izan baitzen beren gazte garaietan.

Horrez gain, DBH3-koen ikuskizuna ere harrigarria izan zen ikusleentzat, beren erritmoa eta mugikortasunaren ondorioz ikusleria dantzan jarri baitzuten.

Laburbilduz, esan dezakegu, aurtengo jaialdia bikaina izan dela eta datorren urterako beste hainbeste espero dugula.

DBH3 ko ikasleak

Ziortzaren udako kanpaldiak

Uda honetan ere, Peñaloscintosera doaz Ziortzakoak. Bi txanda egingo dira: uztailearen 3tik 15era, DBH-ko ikasleekin. LH 5-6 mailetako ikasleekin, uztailearen 15etik 22ra. Izenemate orriak, Sutegin, Kiroldegian eta apaiz etxean eskura daitezke. Orriak bete eta apaiz etxeko bulegoan utzi beharko dira edo email bidez bidali, ziortzage@gmail.com helbidera.

"Egun bat arrantzan" erakusketan

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde, Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak "Egun bat arrantzan" erakusketa egin berri du Urbil merkataritza gunean. Ostiralean, erakusketaren

azken egunean, Udarregi ikastolako ikasleak izan ziren bisitan. Erakusketa bi astez egon da Urbilen eta bisitari ugari izan ditu. Arrantza sektorea herritarrengana hurbiltzea zen kanpaina honen helburua.



AURREKO OSTIRALEAN IZAN ZIREN URBIL-EKO ERAKUSKETAN.

Baxurde Txikik duatloi denboraldiari ekin dio

Euskal Herriko Duatloi zirkuituko lehen lasterketetan parte hartu dute jada, Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldeko kideek. Eta bikain hasi direla esan behar. Eibarren, taldekako sailkapenean, bigarren izan ziren usurbildarrak.

Eibarren ospatu zen Gipuzkoako Txapelketan parte hartu zuten Baxurde Txikiko 8 kideek eta aipatzekoak dira, kirolari taldetik berri eman dutenez, lortu dituzten emaitzak; taldeka bigarren postuan sailkatu zen Baxurde Txiki eta gizonzkoen mailan, Iñaki Añorgak hirugarren amaitu zuen.

Gipuzkoakoan, bigarren

Asteburu honetan Oñatin antolatutako txapelketan parte hartu dute, Baxurde Txikiko kide Paco Rabanok, Iban Maritxalarrek, Jon Carbayedak eta Iñaki Añorgak. Gipuzkoarren artean bigarren postuan amaitu zuen Añorgak, Carbayedak hirugarren beterrano mailan. Taldeka berriz bosgarren sailkatu ziren usurbildarrak eta bigarren geratu ziren Gipuzkoako Txapelketan.

Iñaki Añorga eta Mikel

Otaegi, Euskadiko selekzioan
Gainera, Añorga bera eta Mikel



OÑATIKO TXAPELKETAN, BAXURDE
TXIKIKOAK BIGARREN IZAN DIRA
TALDEKAKO SAILKAPENEAN.

Otaegi Euskadiko selekzioarekin Espainiako Duatloi Txapelketan parte hartzera doaz. Baxurde Txikitik berri eman dutenez bestalde, aldaketak izan dituzte bilgunean.

Hiru kide berri taldean

Bi kideek triatloi taldea utzi dute, baina 2012ko denboraldirako beste hiru kide berri fitxatu dituzte: Aitzol Arrospide, Josu Vazquez eta Iñigo Sasiain.

Ondoko irudian ageri dira Baxurde Txikiko kideak.

Txirrindulari gazteen lasterketa, larunbat honetan

Bazpi txirrindularitza eskolako kideek hasi berri dute, 2012ko denboraldia. Proben egutegi horren baitan, larunbat honetan, martxoaren 17an, urteroko lasterketa antolatu dute Zumarte industrialdean. Kirol proba, arratsaldeko 16:00etan hasiko da.

Judo Taldea, Espainiako Senior Txapelketan

Iruñean jokatu ziren aurreko astean Espainiako Judo Txapelketak. Usurbilgo Judo Taldeko kide batek urrezko domina eskuratu zuen. Nerea Sanzek -48 kg mailan.

Beste kide hauek ez zuten dominik eskuratu baina lan txukuna osatu zuten. Aiora Arrillaga bosgarren izan zen -48 kg mailan. Andoni Aizpurua ere bosgarren, -60 kg. Egoitz Mora zazpigarren izan zen bere kategorian, -100 kg. Iruñean ere lehian aritu ziren Maialen Zubeldia (-63 Kg), Ibai Peña (-66 Kg) eta Aitzol Arrospide (-73 kg).

Eskubaloia kiroldegian

2012/03/17, LARUNBATA:

Kadete neskek, Diputazio Txapelketa.

13.00h. Usurbil KE - La Salle Legazpi

Jubenil neskek, Euskal Liga.

16.30h. Usurbil KE - Errotabarri

Jubenil mutilak, Federazio Txapelketa.

18.00h. Usurbil KE - La Salle Legazpi

17 usurbildar, Donostiako Lilatoian

Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren bezperatan, martxoaren 4an Donostian ospatu zen 23. Lilatoian ez zen usurbildarrik falta izan. 2.105 emakume bildu zituen kirol probak, horietatik 17 usurbildarrak. Honakoak:

4- IDOIA EZEIZA IRURETAGOIENA	00:19:25
136- ELHUIAR URDAMPILLETA	00:24:31
199- ELIXABETE EIZAGIRRE BRUÑO	00:25:32
286- MAITANE EIZAGIRRE BRUÑO	00:26:41
653- MAIDER ANGULO OLAIZOLA	00:28:59
900- ENERITZ AGIRRE URDANGARIN	00:30:23

1038- SONIA GARCIA RODRIGUEZ	00:31:04
1126- LEIRE ERRAZKIN SAGARZAZU	00:31:19
1379- INTZA MACUSO IRIBAR	00:32:25
1380- ELISABET APERRIBAI BASTERRETXE	00:32:25
1410- ANA ISABEL AIZPURUA IRAZUSTA	00:32:32
1566- LOREA ARANALDE ARRUTI	00:33:12
1980- JOSUNE ESTELLA ARRANZ	00:35:38
1982- MARIMAR ESTELLA ARRANZ	00:35:38
2049- ANE ESTELLA ARRANZ	00:36:35
2071- ALAZNE OLAIZOLA IPARRAGIRRE	00:36:56
2084- GARBIÑE URRESTARAZU ESNAOLA	00:37:11

Ekitaldi bete dator Gure Pakeak antolatu duen Jubilatuen Astea

Martxoaren 26an hasi eta apirilaren 1era bitarte luzatuko da Jubilatuen Astea. Aialde Berrin egingo den bazkari batekin borobilduko da Gure Pakeak antolatu duen astea.

Martxoak 26 astelehena

Bihotza eta birikei buruzko hitzaldia, Jose Antonio Arteagaren eskutik. 17:00etan Artzabalen.

Martxoak 27 asteartea

“Erlaxatzen ikastea”, Silbia Kamioren eskutik. 17:00etan Artzabalen.

Martxoak 28 asteazkena

Ibilaldia Donostiara oinez Artzabaldik. 9:30ean irteera. Bazkaria Kai Alden, eguneko menua, 10 euro. Martxoaren 19rako ordaindu behar da.



MARTXOAREN 28AN DONOSTIARA
JOANGO DIRA OINEZ.

Martxoak 30 ostirala

Ipuin kontaketa, Ixabel Agirresarobe. 17:00etan Artzabalen.

Apirilak 1 igandea

Meza 12:00etan nahi dutenentzat eta ordubietan bazkaria Aialde Berrin. Menua sagardotegikoa. 20 euro bazkideentzat. 26 euro gainontzeko jubilatuentzat. Izen ematea: martxoaren 6tik 19ra.

Herriko musika taldeek borobildu zuten Martxoaren 8ko egitaraua

Nabarmenezko moduko parte hartzea izan dute, joan den hilaren 8 eta 9rako Usurbilgo Sexu Aholkularitza Guneak eta herriko emakume talde batek antolatu zituzten hitzorduek. Martxoaren 8an, Uxue Alberdi, Ainhoa Agirrezaldegi eta Onintza Enbeitarekin Artzabalen ospatu zen bertso-afarirako txartelak agortu ziren. Arratsaldean, Ixabel Agirresarobek eskainitako ipuin kontaketa adi-adi jarraitu zioten haur eta gurasoek. Desiren Putzuak ere hainbat desira jaso ditu. Brillat txapelketarako ere hainbat talde osatu ziren, eta aerobik erakustal-



IRUDIAN, URREZKO MUSKERRAK.

diak ere ikusmina sortu zuen. Zumarte Musika Eskola inguruan sortu diren Urrezko Muskerrak eta Ganbaraka taldeek Mikel Laboa plazan ostiral gauean eskaini zuten kontzertuek herritar ugari erakarri zuten.

Aitzagako

bazkideentzat oharra

Martxoaren 4ean Aitzagako kide egiteko aukera zabaldu zuen Ezker Abertzaleak, eta orduz geroztik, herritar ugari adierazi dute Aitzagarekin bat egiteko asmoa. “Dudarik gabe, pozteko modukoa. Gaur egun kide diren guztiek ere derrigorrezkoa dute orri hori betetzea, kuotaren kobraketa kontu korronte bidez egin ahal izateko. Oraindik ez baduzu orria eskuratu, www.usurbileginez.com webgunean eskura dezakezue. Orri hori beteta honako lekuan utz dezakezu: ostegun guztietan, 19:00etatik aurrera, Kale Nagusiko lokalera (Zendoia tabernaren aldamenean) edota korreoz helbide honetara bidal dezakezu (Aitzaga elkarte, 30. postakutxa zenbakia, 20.170 Usurbil)”, ohartarazi dutenez.

Truke Eguna,

martxoaren 25ean

Martxoaren 25ean igandea, goizeko 10:00etatik aurrera zabalduko dute Txokoalden, salerosketarik eta dirurik erabiliko ez den azoka. Trukea, eta herritarren arteko tratua nagusituko dira bertan. Ohi bezala, jai giroan burutuko da Trukalariak taldeek antolaturiko ekimena.



TXOKOALDEN EGINGO DA,
GOIZEKO 10:00ETAN HASITA.

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

663 08 76 71 • 943 24 34 65

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

LATAILLADE

ITURGINTZA

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak
eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

Agenda !!

Martxoak 17 larunbata

16:00 Txirrindulari gazteen lasterketa, Zumarte industrialdean.

18:00 "Sena galdu gabe" Sutegin, diaporama.

Martxoak 18 igandea

11:00 Aginagako Mendi Lasterketa Aginagako frontoitik abiatuta.

19:00 Laburbira Sutegin.

Martxoak 21 asteazkena

18:30 Organo erakustaldia Salvatore elizan. Soinurbil 2012.

Goardiako farmaziak

Martxoak 15, osteguna
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

Martxoak 16, ostirala
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

Martxoak 17, larunbata
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Martxoak 18, igandea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Martxoak 19, astelehena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Martxoak 20, asteartea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Martxoak 21, asteazkena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Martxoak 22, osteguna
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Martxoak 23, ostirala
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

Martxoak 24, larunbata
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

Martxoak 25, igandea
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

* Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Echeveste, Elkano kalea 9, behea Hernani
Telefono zenbakia: 943 552 087.

Urte osoko egutegia jasotzeko bidali FARMA
25600 zenbakira (1,39 BEZ barne)

**Laburbira,
igande honetan Sutegin**

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak, lekuan lekuko euskara elkarrekin, Usurbilen NOAUA! Kultur Elkartearekin batera antolatutako euskarazko film laburren Laburbira emanaldia ikusteko aukera izango da asteburuan.

Apirilaren 3ra arte 30 saioko Euskal Herri mailako zirkuitua osatuko duen bederatzigarren edizio honetan, guztira, zortzi ikus-entzunezko eskainiko dira, igandean, martxoaren 18an, iluntzeko 19:00etatik aurrera Sutegiko auditorioan. Sarrera doakoa izango da. Hona hemen, eskainiko diren ikus-entzunezkoak:

-HEMEN NAGO, 2010

Maialen Sarasua (13' 45'').

-ZEINEK GEHIAGO IRAUN,

2011. Gregorio Muro (12').

-URREZKO ERAZTUNA, 2011

Jon Garaño (7').



TOPAGUNEKO ORDEZKARIA
ETA JON GARAÑO ZINEGILEA.

-IZENA DUENA, 2011

Joseba Uberuaga (9').

-OHE AZPIKO ZERA, 2011

David Zabala eta Paul Urkijo (13').

-KANTUKA-REVOLTA

PERMANENT, 2011

Kultur Kabia. Izarren distira (3').

-INSTALACION, 2010.

Xoxe Diaz (14' 22'').

-ABERRIA. 1961.

Gotzon Elortza (15').

**Ukendu tailerrean,
izen ematea ixtear**

Hanturak, kolpeak, muskulu Harazoak... sendatzeko ikastaroa antolatu du Etumeta-AEK euskaltegiak, martxoaren 20rako. Bi orduko saioa eskainiko du Itziar Salegik euskaltegiko egoitzan bertan, 19:00-21:00 artean. Ostiral honetara arte, hilaren 16ra arte eman daiteke izena, 607 609 379 telefono zenbakian, usurbil@aeek.org helbidean, edo euskaltegian bertan. Ikastaroko prezioa; 3 euro.

**"Sena zendu gabe"
diaporama Sutegin**

Euskal Herriko nortasuna islatzen duen "Sena zendu gabe" diaporama saioa berriz ikusteko aukera egongo da, larunbat honetan, martxoaren 17an, arratsaldeko 18:00etatik aurrera Sutegiko auditorioan. Iñaki Agirresarobe egileak aurreratu moduan, "herriko nortasunarenak izan daitezkeen 5 zutaberen inguruko argazki bilduma da (etxegintza, dantza, kirola, natura eta hizkuntza)". Emanaldiak 35 minutuko iraupena izango du.

USURBIL AUTOAK
-TAILERRA -KARROZERIA -KOTXEEN SÄLMENTA

 **SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!**

zerbitzu ofiziala
Zumartegi industrialdea

 **943 36 10 79**

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

ETXEBIZITZA

- Pisu bat salgai Kalearren. 57 metro karratu. Felix Aizpurua plazan. 108.000 euro. Berritzeko. 672152101.
- Pisu alokatzen dut Elgoibar erdigunean. Lau gelakoa. 677 780 680.
- 3-5 gela arteko pisua alokatzen dut Castellonen, oporraldi, asteburu pasa edota ezkontza agurretarako. Itsaso, gaztelu eta mendialdeko bistak ditu. 677 780 680.
- Pisu salgai, San Esteban kalea 11n. 4.pisua. Kanpoaldera ematen du eta eguzkitsua da. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530 792.
- Pisu salgai, San Ignazio 5 kalean. 3 logela, 100 metro karratu eta terraza. 340.000 euro. 648 013 277
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346.
- Logela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. 667740266.
- Etxebizitza salgai Atxegalden. 86 metro, sukalde-jangela handia, 3 logela, egongela, 2 bainugela, ganbara, terraza handia. Berritua. 232.000 euro. 699 189 764.
- Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukalde, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318.
- Pisu salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara, igogailua. 662 056 899.
- Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro karratuko trasteroa, dena berritua, fatxada eta teilatua konpondu berriak. 677 471 648.
- Altxariak izan eta bi gela dituen alokairuko pisu baten bila gabilta Usurbil inguruan. Fidantza eman dezakegu. 626 154 994 / 697 230 419.
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 120.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Pisu alokairuan Atxegalden. 3 gela, sukaldea, bi komun, terraza eta igogailuarekin. 943 371 066 / 637 309 209.
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Alfaron dudana pisua zonalde honetan etxebizitza duen norbaitekin trukatu nahiko nuke. 941 182 562.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logetako pisu salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauten deitu).
- Alokairuan den pisu baten bila nabil. Idioia 695733535.
- 90 m pisu bat salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua eta bizitzeko jartzeko moduan. 699 680 265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera). 237.000 euro.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar 655 731 915.
- Lau logetako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera garajea erosteko. 699720940.
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegia ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
- Alokairuko pisu bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke erentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- 230 metro etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro koadro lursaila. Kalearren. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Kaxkoan etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Lokal bat alokatzen da Usurbilen, 90 metro karratuko. Gazteentzat... Atxegalden. 628 063 871.
- Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden, Aristitxo kalean. Bi solairu, bakoitza 45 m, guztira 90 metro. Argia, ura eta komuna. 658 716 970.
- 38 m garaje itxia salgai, Txaramunton. 665 677 195.
- Garaje itxi bat alokatzen da Arzabal. 647 120 253.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. 669645585 edo 943365191.
- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150

- sagarrondorekin. Deitu: 943 361 463.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- 50cc-ko motorra salgai. 2 urte, oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Selektibitatea prestatzeko klaseak jaso nahi ditut martxoan eta apirilean, bi alor hauetan: Matematika (zientziak eta letretakoa) eta Marrazketa teknikoak. Deitu, mesedez, telefono honetara: 665 748 723.
- Atsedena agindu dioten ama batek ama den emakume euskaldun eta eskarmentuduna behar du, egunean 4-5 orduz haur bat zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. 607263383.
- Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabilta. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabilta. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrik emateko prest egongo al zinake? Hala bada, pasaz zaitez Udaregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

Lan-eskaintzak

- Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.
- 17 urteko neska euskalduna, udan lan egiteko prest: umeak zaintzeko, ikasketetan laguntzeko, ... Esperientzia umeekin eta Bigarren Baxilerra amaitua. 665754889 / 634459249 (Ane)
- 16 urteko mutil euskalduna naiz eta udarako lan bila nabil. Umeak zaindu edo indarra behar den lanak egiteko prest nago, baita beste edozein lan ere. Baxilerreko lehen maila amaitua. Tel: 665754889 / 692577515 (Xabier)
- Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.
- Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.
- Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.
- Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568
- Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.
- Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.
- Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. Tlf: 673 445 903.
- Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324
- Umeak zainduko nituzke arratsalde edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.
- Usurbilgo neska gazte bat naiz, Heziketa Berezian diplomatu eta psikopedagogian lizentziatua. Goizez nahiz arratsalde, klase partikularrik emateko zein haurrak zaintzeko prest. Badut esperientzia baita hezkuntza zementu bereziak dituzten haur eta gazteekin ere. 688 661 997 / 943 365 005.
- Neska euskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrik emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritza eta Haur Hezkuntzan diplomatu naiz. Badut esperientzia. 652712099.
- Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko, edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. Tlf.: 628 692 334.
- LHko haurrentzat klase partikularrik emateko neska eskaintzen da. 680 453 563 (Maialen).
- Emakume arduratsua eta erreferentziarik eskaintzen da, etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo lan desberdinak egiteko. Lana behar dut. Tlf.: 626 370 969.
- DBH eta Baxilergoko klase partikularrik emateko prest. Matematika, Marrazketa... 687 674 161.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu... Esperientzia daukat, kotxearekin eta euskaraz dakit. 943 365 079.
- Matematikako klase partikularrik, maila guztietan, 18 urtetako esperientzia. 646717676.
- Ingeles neska natiboa, haurtzaindegiko irakaslea 3 urterik 8 urte arte klase partikularrik emateko prest. 656753063.

- Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko. 660041361.
- Emakume euskaldun bat eskaintzen da adineko pertsona bat zaintzeko, nahi den ordutegian. Disponibilitate osoa ordutegi aldetik, astelehenerik ostiralera. 687 348 223.
- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta familiargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanetarako ere. 697 245 186, Idioia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
- Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritza aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziaduna eta ikasketa titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduek zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboak, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendarri lanetan arituko nintzateke goizez. 620 093 697.
- Garbiketa lanetan edo dendarri moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziarik eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123.
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrik ematen ditut ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalcan. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri, baratzeko lanak, mendia garbitzeko edo igeltsaritza lanetarako, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gazteok orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Egoera onean dauden kanping kanadienseak jasoko genituzke. Soberan izanez gero, jarri gurekin harremanetan: ziorrtage@gmail.com
- Kalearren, maleta bat galdu da hezetasunari buruzko informazioarekin. 626 471 135. Saritu egingo da.
- Landetan "movil home" bat alokatzen da "Lago Leon" en. Aste Santuko bigarren astea, uztaila eta iraila. "Punta Lago" kanpian. 634 443 909.
- Hemengo babarruna salgai, artoarekin batera egindakoa: 637 974 994.
- Proba ezazu modan dagoen kirola pade!! Klase bat doan. Irakasle tituladunak 667438145.
- Haur sila eta kapazoa, Bogaboa edo antzeko bat saltzen baduzu, deitu telefono honetara: 667 715 075.
- Hemengo urra eta patata erosiko nituzke. 634409888.
- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 (Jesus Mari).
- Legorretako babarruna salgai. 943 80 62 48.
- Zaldi bat jartzeko lursail bat alokatuko nuke 616 260 451.
- GPS Tomtom berria salgai. 600 244 126.
- Akordeia saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Hemengo intxaurrek salgai. 943 67 11 60.
- Usurbilen Wii-a, PSP-a eta nintendo DSI-aren softwarea aldatzen da, Internetetik jaisitako joko guztietan jolastu ahal izateko. Ez da txipik instalatzen, ez da kontsola irekitzen. 635 729 637.
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

JAIOTZAK

Ekai Zubizarreta Cubillas, otsailak 20
Eneko GaraiYurrebaso Urdanpilleta,
otsailak 23
Irati Etxeberria Esnaola, martxoak 2



Zorionak
amatxo eta
Elene! Egun
ona pasa
zuen urtebetetze egunean,
martxoaren 15ean, aita,
Jon eta Anneren partez.



Zorionak
Garazi! 7 urte
beteko dituzu
martxoaren
13an. Jarraitu horrela!
Zorionak familikoan
partez!

HILDAKOAK

Julian Gallardo Macho
martxoaren 9an, 83 urterekin
Usurbilen
Ana Mari Arruti Lertxundi
martxoaren 10ean, 85 urterekin
Usurbilen



OSASUN GIDA 2012



**USURBIL
OPTIKA**

Ertzumeneko aparatuak • Igerlekuko tapoiak neumira eginda
BEHERAPENAK eguzkitako betaurrekotan %50 arte

Zubiaurrenea, 10. • ☎ 943 370 269 • 675 708 654

**UMEEN
BETAURREKOETAN**

**LENTE BAT
DOAN!**





FISIOTERAPIA ZENTROA

Ibaiondo

Ola Kalea, 12 - behea. ezk. LASARTE - ORIA Tel / Faxes: 943 370 306

**Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak**





Kima

MASAJE LKUA

• Kirol masajea
• Masaje terapeutikoa
• Kolonaren hidroterapia
(idortasuna eta haize arazoak hobetzeko)

☎ 943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA



**iturralde
botika**

Tomas Iturralde botika
R.P.S. Nº 88/07

Borda berri 1, 20170 USURBIL ☎ 943 36 33 95

- ✓ Maisu formulak
- ✓ Dermofarmazia
- ✓ Produktu Homeopatikokoak

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

Usurbil.Hernani.Oiartzun.Antzuola

3 urtetan 4 herri, datorren urtean 34 berri

Legorreta.Villabona.Zizurkil.Segura.Lezo.Zestoa.Anoeta.Irura.Legarzi.Ormaiztegui.Lazkao.Bergara
Oñati.Astigarraga.Zumaiá.Asteasu.Alegia.Azpeltia.Berastegi.Zaldibia.Ibarra.Tolosa.Mutrikua
Ataun.Mendaro.Eskoriatza.Aretxabalota.Pasaia.Zarautz.Ordizia.Deba.Arrasate.Orio.Gotaria

**“ONGI ETORRI ATEZ ATEKOAREKIN
ZERO ZABOR BIDERA”**



**Martxoaren 18an, igandea
12:00etan USURBILgo plazan**

Garrantzitsua!!

Organikoaren kuboarekin azaldu!!

rudi batean adierazi behar dugu Atez Atekoaren alde gaudela.

Antolatzailea:

